

JAKINARAZTEN DA Begarako Udaleko Alkateak 2023ko apirilaren 24an honako dekretua eman zuela:

“Begarako Udalak lehiaketa-oposizio irekiaren sistemaren bidez kirol instalazioen mantenimenduko ofizialen 2 lanpostu deialdi librean behin betiko betetzeko deialdia egin zuen.

Epaimahaiak, oinarri jarraituz, mantenimenduko ofizialak kontratatzeko proposamena egin zuen. Proposamen horretan jasotako batek (15XXXX11C NAN zenbakia duen izangaiak) Obra eta Zerbitzuetako Brigadarako elektrizitate-arduradunaren postua ere eskuratu zuela eta hura aukeratu duenez, 2023ko martxoaren 1etik kirol instalazioen mantenimenduko ofizial bezala kontratua egin zitzaion zerrendan hurrena zegoen 44XXXX49J NAN zenbakia duen izangaiari.

Azken izangai honen praktikaldiari dagokionean, departamentuburuak txostena egin zuen eta epaimahaiak onartu egin zuen.

Bertan jasotakoaren arabera frogaldiaren emaitza “Ez Gai” da.

Oinarrietan jasotakoak hau dio:

*“Frogaldiaren arduradunak ezarritako kalifikazioa epaimahai kalifikatzaileari bidaliko dio eta honen proposamena txostenean jasotakoarekin bat ez baldin badator, arrazoitua izango da.*

*Halaber, eta kalifikazio-txostena langilearen aldekoa ez bada, langileak aukera izango du epaimahaiaren aurrean alegazioak egiteko.”*

Epaimahaiak “Ez gai” kalifikazioa onartzea erabaki zuen eta 44XXXX49J NAN zenbakia duen izangaiari bost laneguneko epealdia eman zion alegazioak egiteko –epaimahaiaren erabaki haren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–.

44XXXX49J NAN zenbakia duen izangaiak alegazio-idatzia aurkeztu zuen 2023ko apirilaren 14an. Epaimahaia bildu da apirilaren 21ean eta 24an.

Epaimahaikideek hainbat azalpen eman dute bertan jasotakoaren inguruan.

Halaber, Iñaki Ugarteburuk egindako erantzun-txostena irakurri zen eta epaimahaiak bozkatu eta bertaratutako bost (5) epaimahaikideetatik hiruk “Ez Gai” kalifikazioa berrestea bozkatu zuten, batek aurkako bozka eman zuen eta bosgarrena abstenitu egin da.

Epaimahaiak, halaber, honako proposamena egitea onartu du:

*44XXXX49J NAN zenbakia duen izangaiak aurkeztutako alegazioak aintzat ez hartzea eta praktikaldiaren “Ez Gai” kalifikazioa berrestea.*

Oinarrietan jasotakoak hau dio:

*“Frogaldiak hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du, horren azken balorazioa gai/ez-gai izango da, eta Udal Iragarki Taulan argitaratuko da.”*

Gauzak horrela, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA.- 44XXXX49J NAN zenbakia duen izangaiaren frogaldiaren balorazioa “Ez Gai” dela onartzea eta hautaketa-prozesua ez duela gainditu eta sinatuta duen kontratua bertan behera lagatzea 2023ko apirilaren 30eko eraginekin.

Erabakiaren jakinarazpenarekin batera, epimahaiak egindako bileraren aktari erantsitako alegazioei erantzuten dien txostenaren kopia igortzea.

Balorazio honen emaitza Udaleko Iragarki Taulan argitaratzea.

BIGARRENA.- Kirol instalazioen mantenimenduko ofizialak kontratazeko deitutako hautaketa-prozesuaren oposizioaldia gainditu eta prozesuan puntuazio altuena lortu duen hurrengo izangaiari deitzea beranduen ere 2023ko maiatzaren 12an kontratua sinatzeko.

Gogoraztea udaleko lorezain ofizialaren jubilazio partziala dela-eta, txandakako kontratua egiteko beharra duela udalak.

Hori dela-eta, kontratua sinatzeko eguna erreferentzia hartu eta aurreko bi egunetan gutxienez enplegu bulegoan langabetu gisa inskribatuta egon behar da.

Alkate-udalburuak epimahaiak proposaturiko izangaiari kontratu mugagabea egingo dio, finkoa bihurtuko dena automatikoki txandakako kontratuari mugagabea izateko dagokion epea pasatu ondoren (jubilazio osoari dagokion data eta bi urtera).

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea udaleko web-orrian eta udaleko iragarki taulan, eta 44XXXX49J NAN zenbakia duen izangaiari eta prozesuan puntuazioaren arabera ezarritako hurrenkeran lehentasuna duen hurrengo izangaiari jakinaraztea.

#### Ebazpenaren aurkako bideak

*Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau udaleko web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.*

*Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena udaleko web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.*

*Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.*

*LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.*

Begara, 2023ko apirilaren 25a

IDAZKARIA

SE COMUNICA que el Alcalde del Ayuntamiento de Bergara el 24 de abril de 2023 emitió el siguiente decreto:

“El Ayuntamiento de Bergara, mediante sistema de concurso-oposición abierto, realizó una convocatoria para la provisión definitiva de 2 puestos de oficial de mantenimiento de instalaciones deportivas.

El tribunal, de conformidad con las bases, propuso la contratación de los oficiales de mantenimiento. Una de las personas incluidas en dicha propuesta (aspirante con número de DNI 15XXXX11C) obtuvo también el puesto de responsable de Electricidad de la Brigada de Obras y Servicios y eligió este último puesto, por lo que desde el 1 de marzo de 2023 se contrató como oficial de mantenimiento de instalaciones deportivas a la persona aspirante con número de DNI 44XXXX49J que figuraba el siguiente en la lista.

Respecto al periodo de prácticas de este último aspirante, el jefe de departamento elaboró un informe que fue aprobado por el tribunal.

En él se recoge que el resultado del periodo de prueba es de “No Apto”.

En las bases se recoge lo siguiente:

*“La persona responsable del periodo de prueba remitirá la calificación establecida al tribunal calificador y si la propuesta de la misma no se ajusta a lo informado será motivada.*

*Asimismo, y en caso de que el informe de calificación no sea favorable al trabajador o trabajadora, se podrá formular alegaciones ante el Tribunal.”*

El tribunal acordó aprobar la calificación de “No apto” y conceder a la persona aspirante con número de DNI 44XXXX49J un plazo de cinco días hábiles –a partir del día siguiente a la recepción de la notificación del acuerdo del tribunal– para formular alegaciones.

El 14 de abril de 2023, la persona aspirante con número de DNI 44XXXX49J presentó un escrito de alegaciones. El tribunal se ha reunido los días 21 y 24 de abril.

Los miembros del tribunal han realizado diversas manifestaciones sobre lo recogido en el mismo.

Asimismo, se dio lectura al informe de respuesta elaborado por Iñaki Ugarteburu, que fue votado por el tribunal y, de los cinco (5) miembros presentes, tres votaron la ratificación de la calificación de “No apto”, uno votó en contra y el quinto se ha abstenido.

El tribunal, así mismo, ha aprobado realizar la siguiente propuesta:

*Desestimar las alegaciones presentadas por la persona aspirante con número de DNI 44XXXX49J y ratificar la calificación de “No Apto” del periodo de prácticas.*

En las bases se recoge lo siguiente:

*“El periodo de prueba constituirá una fase más del proceso selectivo, con una calificación final de «Apto/a» o «No Apto/a», que será publicada en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.”*

Así pues, **HE RESUELTO:**

**PRIMERO.** - Aprobar que la valoración del periodo de prueba de la persona aspirante con número de DNI 44XXXX49J ha sido de “No apto” y, dar por finalizado el contrato por no superación del periodo de prueba de conformidad con las bases de la convocatoria, que producirá sus efectos el día 30 de abril de 2023.

Junto con la notificación de la resolución, darle traslado del informe que se adjunta al acta de la sesión celebrada por el tribunal, en el que se da respuesta a las alegaciones.

Publicar el resultado de esta valoración en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.

**SEGUNDO.** - Convocar a la siguiente persona aspirante que tras superar la fase de oposición haya obtenido mayor puntuación en el proceso selectivo convocado para la contratación de oficiales de mantenimiento de instalaciones deportivas, para suscribir el contrato a más tardar el 12 de mayo de 2023.

Recordar que, dada la jubilación parcial del oficial jardinero municipal, el ayuntamiento debe realizar un contrato de relevo.

Por ello, tomando como referencia la fecha de la firma del contrato, deberá estar inscrito/a en la oficina de empleo en calidad de demandante al menos desde dos días antes.

La Alcaldía-Presidencia hará un contrato indefinido a la persona aspirante propuesta por el Tribunal, contrato que se convertirá automáticamente en fijo cuando transcurra el plazo correspondiente al contrato indefinido del contrato de relevo (a los dos años a partir de la fecha correspondiente a la jubilación completa).

**TERCERO:** Dar cuenta de esta resolución en la página web municipal y en el tablón de anuncios del ayuntamiento y notificársela a la persona aspirante con número de DNI 44XXXX49J y a la siguiente persona aspirante con prioridad conforme al orden de puntuación establecido en el proceso.

**Recursos contra la resolución:**

*Contra la resolución que se le notifica, y que es definitiva en vía administrativa, podrá usted interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la publicación en la página web municipal de esta notificación.*

*No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se le notifica podrá Vd. interponer RECURSO DE REPOSICIÓN ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el siguiente a la publicación en la página web municipal de esta notificación.*

*Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.*

**FUNDAMENTOS JURÍDICOS:** *Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.*

Begara, 25 de abril de 2023

LA SECRETARIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU81054a8d-1d8d-45fe-bd11-2b8bd574b585**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>**